

## MUSEOEN NAZIOARTEKO EGUNA SAGARDOETXEAN: "Musika sagastian"

Nazioarteko Museoen Eguna ospatzeko helburuz, egitarau berezia antolatu dugu Sagardoetxean eta datorren Maiatzaren 20an "Musika sagastian" emanaldia eskainiko dugu.



Egun horretan museora bertaraten direnek, loretan dagoen museoko sagastian **musika emanaldi** batetaz gozatzeko aukera izango dute eguerdiko 13:00etan.

Musika emanaldia, Astigarragako Norberto Almandoz musika eskolako

abesbatzak eta biolin ikasleek eskainiko dute.

Honekin batera, dohako **bisita gidatuak** izango dira goizean (euskaraz eta gaztelaniaz) eta musika emanaldiaren ostean, **sagardo eta pintxo dastaketa** izango da.

### Ordutegiak eta tarifak

Sagardoetxeako ordutegia: 11:00-14:00etara.

"Musika sagastian": 13:00etan.

Museorako sarrera dohakoia izango da.

### Sagardotegiak

Sagardoetxeara gerturatzen diren bisitariak, jardunaldia **sagardotegi** batean bazkalduaz amaitzeko aukera izango dute.

Ikusi maiatzaren 20an irekita dauden sagardotegiak <http://www.txotx.info> orrialdean.



**Sagardoetxea**  
herri baten erroak

*Sagardoetxea sagardoaren kulturaz gozatzeko leku bat da, euskaldunen identitate eta ohituren ezaugarri. Naturarekin harremanetan ikasteko leku bat, ikusi, ukitu eta dastatuta... Txotx!*

Harpidetza

Sagardoaren museoa  
Museo de la sidra  
Kale Nagusia 48  
20115 Astigarraga - Gipuzkoa  
Tel. 00 34 943 650 575  
info@sagardoetxea.com  
www.sagardoetxea.com

**Sagardodenda**  
Euskal Sagardoaren Online Denda

